

Sexu abusua kirolean



**AINHOA AZURMENDI
ECHEGARAY**
KIROL AHOLKULARIA ETA
EHU-KO IRAKASLEA

Ez dut oroitzen lehen aldiz bortxatu ninduen data zehatza, baina ondo gogoratzen dut nire entrenatzaileak ehunka aldiz bortxatu ninduela 12 urte nituenetik, bere atzaparretan eduki ninduen lau urteetan zehar. Ez nintzen bakarria izan, eta hala ere, nire entrenatzaileak, heroia, kirol munduan errespetatua eta miretsia, 30 urtez neskatok entrenatzen jarraitu zuen. Inguruan pertsona heldu asko ziren zerbait pasatzen zela susmatzen edo sumatzen zutenak, baina inork ez zuen ezer egin guri laguntzeko. Ez dago pertsona baten osasuna eta segurtasuna baino gehiago balio duen dominarik. Egun, kirolean, haurren eta nerabeen eskubideak etengabe urratzen dira. Egiari zor, abusatu nahi duenak hala egin dezake eta isilpean gorde luzaroan, kirol kulturaren neurrigabeko metodologiak eta jokabideak justifikatu egiten baitira dominak edo emaitzak lortzearen truke". Hauxe adierazi zidan Gloria Viseras gimnasta olinpiar oihak bere testigantzan oinarrituta gai honen inguruan idatzi nahi nuela esan nionean.

Gloriaren hitzen moduan, Pepe Godoy *Hiru Buruko Munstroa* dokumentalean,

Kirol esparruak badauzka berezko hainbat ezaugarri sexu abusua gertatzea ahalbidetzen dutenak; eta –esatera ausartuko naiz–, gertatu daitezkeen errazten dutenak

bere gaztetako futbol elkarteetan jasandako sexu abusuz hitz egiten entzutean, barruak goitik behera astintzen zaizkit, amorruez. Horrelako basakeriak jasaten dituzten haurrek sufrimendu hori gertatzen hasten den une beretik aurrera, zama neurrigabea eramaten dute etengabe zornatzen duen zauri mingarri batean. AEBetako Larry Nassar kasuaz hitz egin nezake; kirol elkarte ezberdinekin ni neu lanean aritzean, bat-batean agerian jarri diren sexu-abusu kasuez; edota zendu den Michael Robinson-ek 2017an egin zuen irratirako programan azalatu zituen kasu guztiez. Hamaika adi-

bide dauzkagu, han eta hemen, hemen eta han. Eta ezin dugu jarraitu pentsatzen gurean horrelakoak ez direla gertatzen. Gure gizartean adin gabeek sexu abusua jasaten dute, baita kirol arloan ere. Bereziki kirol arloan? Ikerketa egin artean galdera hori erantzuteke egongo da, alabaina, ukatu ezin dena da gertatu gertatzen direla, eta kirol esparruak badauzkala berezko hainbat ezaugarri sexu abusua gertatzea ahalbidetzen dutenak; eta –esatera ausartuko naiz–, gertatu daitezkeen errazten dutenak.

Ezinbestekoa da kirol arloko erakundeetan kirolariak babesteko protokoloak ezartzea, eta arlo honetan parte hartzen duten agente guztiek gai honi buruz formakuntza jasotzea egoera eze-gokiak antzemateko, eta gertatzen denean nola jokatu behar den jakiteko. Kirol lorpen batek ez ditu inola ere justifikatzen abusu emozionala, fisikoa edo sexuala pairatzen duen pertsona batek bere bizitza osoan zehar jasan behar dituen ondorioak. Kirola gozagarria eta hezigarria izan dadin, kirola egiteko ingurune seguru eta osasuntsuak bermatu behar ditugu. ●

Ogiaren egia
Galparsoro OKINDEGIA
Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako ininarekin egindako ogiak
Orantza ogiak
Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

LUA arkitektoak
ARKITEKTURA eta HIRIGINTZA
www.luark.com
948132097 - Arga ibaiaren kalerantz 2B 30 Inuria

MANU ROBLES-JARANGIZ INSTITUTUA
ARGIA
LIBURUA SALGAI!
14€
AZOKA.ARGIA.EUS
943 37 15 45